

NOLA AURKEZTU ZUZENKETAK EDO ERREKLAMAZIOAK BERARIAZKO ZERRENDEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDARI

Jarraibideak, **zuzenketa edo erreklamazioen bat** aurkezteko onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurrean, berariazko zerrenden prozesuan.

Hasi baino lehen, **presta ezazu** zuzentzeko **aurkeztu nahi duzun dokumentazioa SOILIK**. Ez duzu dokumentazio guztia berriz aurkeztu behar, baizik eta II., III. eta IV. eranskinetan eskatu zaizuna, besterik ez. Alegazio bat egin edo zerbait adierazi nahi baduzu, horretarako prestatutako testu-koadroan idazten ahal duzu, edo agiri batean, bereizirik, eta formularioari erantsi.

Jarraian, ikusiko duzu zeintzuk diren deialdi honetatik **baztertzeko edo merezimenduak zuzentzeko** arrazoiak, eta nola zuzendu:

BAZTERKETA OROKORRAK

• Erantzukizunpeko adierazpena:

- ✘ Ez du aurkeztu erantzukizunpeko adierazpenik, adierazten duenik ez dela kaleratua izan diziplinazko espediente bidez Administrazio Publikoen zerbitzutik, eta eginkizun publikoak betetzeko desgaitua ez dagoela, ez eta enpleguz eta soldataz gabetuta behin-behinean edo irmoki ere diziplinazko espediente baten ondorioz.
- ✓ Web-fitxaren "Tramitazioa" atalean eskuragarri dagoen erantzukizunpeko adierazpenaren eredia aurkeztu behar da.

• Hizkuntza: gaztelania.

- ✘ Ez du frogatu gaztelaniaz dakienik.
- ✓ Atzerritarrek ez dute gaztelaniaren jakite mailari buruzko probarik egin behar, baldin eta titulu hauetako bat badute: Gaztelaniaren Diploma (goi maila), zeina Gaztelania Atzerriko Hizkuntza gisa Goi Mailako Diplomaren baliokidea baita (urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretuak ezarritakoa), edo, bestela, Gaztelaniaren C1 mailako Diploma, hizkuntza eskola ofizialek atzerritarrentzat ematen duten Gaztelaniaren Gaitasun Agiria edo Filologia Hispaniko edo Erromanikoan lizentziadun edo gradudun titulua. Orobat, gaztelania hizkuntza ofiziala duen herrialde bateko nazionalitatea dutenak gaztelaniaz badakitela egiaztatetik salbuetsita egonen dira, bai eta Espainian unibertsitate-tituluren bat lortu dutenak ere. Gaztelania badakitela egiaztatu behar dute, dagokien dokumentazioa aurkeztuta. Ziurtagiri hori ez badute, gaztelaniaren jakite mailari buruzko proba egiteko eskatzen ahalko dute. Eskaera formularioko testu-kutxaren bidez egin behar da, "Gaztelaniaren jakite mailari buruzko proba egin nahi dut" dut" adierazita.

• **Dokumentazio osatugabea eta irakurtezina:**

- ✘ Dokumentazioa irakurtezina edo osatugabea da
- ✓ Dokumentazio osoa duten fitxategiak bidali behar dituzu (alde bietatik eskaneatutako dokumentua edo dokumentuaren orrialde guztiak), honako formatuetako batean: pdf, jpg edo jpeg.

• **Nortasun-agiria:**

- ✘ Ez du nortasun-agiriaren kopia eskaneaturik aurkeztu.
- ✓ Nortasun-agiri osoa (bi aldeak) eta indarrean (iraungi gabea) aurkeztu behar duzu.

- ✘ Aurkeztutako identifikazio-dokumentua iraungita dago.
- ✓ Indarrean dagoen nortasun-agiria aurkeztu behar duzu.

- ✘ Aurkeztutako identifikazio-dokumentua irakurtezina edo osatugabea da.
- ✓ Nortasun-agiri osoa aurkeztu behar duzu (bi aldeak), pdf, jpg edo jpeg formatuan.

- ✘ Ez du frogatu espainiar baten ezkontidea denik, ezta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritar batena ere. Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren 14. artikuluko 1. puntuko baldintza orokorrak bete behar ditu.
- ✓ Espainiar baten ezkontidea zarela edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritar batena zarela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar duzu.

BERARIAZKO BAZTERKETAK

• **Eskatutako espezialitatea:**

- ✘ Ez du adierazten zer espezialitatetan sartu nahi duen.
- ✓ Espezialitatea adierazi behar duzu formularioaren testu-koadroan.

- ✘ Iragarri ez den edo existitzen ez den espezialitate bateko zerrenda espezifikokan sartzeko eskatzen du.
- ✓ Espezialitatea adierazi behar duzu formularioaren testu-koadroan.

• **Hautaturiko espezialitate bakoitzean sartzeko eskatzen den titulua:**

- ✘ Eskatutako titulua egiaztatzen duen fitxategia ustelduta dago eta ezin da ireki
- ✓ Dokumentazio osoa duten fitxategiak bidali behar dituzu (bi aldeak), honako formatuetako batean: pdf, jpg edo jpeg.

- ✘ Aurkeztutako titulua ez da baliozkoa espezialitaterako, apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren arabera.
- ✔ Aurkeztutako titulazioa apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinean jasota egon behar da.

- ✘ Ez du aurkeztu tituluaren atzealdea.
- ✔ Titulua bi aldeetatik eskaneatuta aurkeztu behar duzu.

- ✘ Eskatzen den tituluaren egiaztagiria iraungia dago.
- ✔ Unibertsitate batzuek emandako zenbait ziurtagirik urtebeteko balioa dute. Indarrean dagoen beste ziurtagiri bat aurkeztu behar duzu, edo tituluaren kopia, bi aldeetatik.

- ✘ Ez du aurkeztu atzerrian eskuratutako tituluaren kopia eskaneatua eta, harekin batera, homologazioa eta zinpeko itzulpena, kasua bada.
- ✔ Eskatzen den titulu indardunaren kopia osoa aurkeztu behar duzu, ongi irakurtzeko moduan, euskaraz edo gaztelaniaz, edo titulu hori emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria. Atzerriko tituluaren kasuan, homologazioa ere aurkeztu behar da, eta, kasua bada, zinpeko itzulpena ere bai.

- ✘ Ez du aurkeztu espezialitaterako eskatzen den tituluaren kopia eskaneaturik, edo ez du aurkeztu titulu hori emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria.
- ✔ Eskatutako titulazioaren kopia eskaneatua edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu behar duzu.

- ✘ Ez du unibertsitate-titulua bi aldeetatik eskaneatuta aurkeztu.
- ✔ Eskatutako titulazio osoaren kopia eskaneatua aurkeztu behar duzu (bi aldeak), edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria.

- ✘ Ez du aurkeztu, gaztelaniara itzulita, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izana frogatzen duen ziurtagiririk.
- ✔ Titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu behar duzu, edo, bestela, eskatutako tituluaren kopia osoa (bi aldeak) edo indarrean dagoen ziurtagiria. Atzerrian egindako titulazioetarako, gainera, zinpeko itzultzaileak egin behar du itzulpena.

- ✘ Ez du aurkeztu Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinean eskatzen den unibertsitate-titulua.
- ✔ 590 kidegoan (Bigarren Hezkuntzako irakasleak) integratu diren espezialitateetarako, unibertsitate-tituluren bat eduki beharko da, apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinaren arabera.



• Prestakuntza pedagogikoko **masterra** edo baliokidea:

- ✘ Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzeko fitxategia ustelduta dago eta ezin da ireki.
- ✓ Beste fitxategi bat aurkeztu behar duzu formatu hauetako batean: pdf, jpg edo jpeg.

- ✘ Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren ziurtagiria iraungia dago.
- ✓ Unibertsitate batzuek emandako zenbait ziurtagirik urtebeteko balioa dute. Indarrean dagoen beste ziurtagiri bat aurkeztu behar duzu, edo tituluaren kopia, bi aldeetatik.

- ✘ Aurkeztutako prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren ziurtagiria osatugabea da.
- ✓ Bi aldeetatik eskaneatutako ziurtagiriaren beste fitxategi bat aurkeztu behar duzu.

- ✘ Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren ziurtagiria ez da ofiziala.
- ✓ Aurkeztutako ziurtagiriak unibertsitateak edo banku-erakundeak zigilatuta edo sinatuta egon behar du, dagokionaren arabera.

- ✘ Irakaskuntzako masterraren titulua emateko tasak ordaindu izanaren ordezkotako ziurtagiria ez da ofiziala.
- ✓ Aurkeztutako ziurtagiriak banku-erakundearen zigilua eta/edo sinadura izan behar du.

- ✘ Ez du frogatu eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duenik.
- ✓ Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duzula egiaztatzen duen dokumentu bat aurkeztu behar duzu. Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoa (591) desagertzeagatik Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) integratu diren espezialitateetarako, ez da baliozkoa prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren prestakuntza baliokidea ezartzen duen ziurtagiria lortzeko ikastaroa, unibertsitateko tituludunak ez izateagatik master-ikasketak egin ezin dituztenentzat.

- ✘ Ez du frogatu irakaskuntzako masterraren titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu dituenik.
- ✓ Irakaskuntzako masterraren titulua emateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar duzu, edo, bestela, titulu osoa aurkeztu.

- ✘ Ez du aurkeztu eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren kopia eskaneaturik, edo ez du aurkeztu titulu hori emateko eskubideak ordaindu izana frogatzen duen agiririk.
- ✓ Eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren kopia eskaneatua aurkeztu behar duzu, bi aldeetatik, edo titulu hori emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztatzea.

- ✘ Ez du aurkeztu atzerrian eskuratutako irakaskuntzarako gaitasun agiriaren tituluaren kopia eskaneatua eta, harekin batera, homologazioa eta zinpeko itzulpena, kasua bada.
- ✓ Eskatutako prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren kopia irakurterraza eta osoa aurkeztu behar duzu, gaztelaniaz edo euskaraz, edo titulu hori emateko eskubideak ordaindu izanaren

indarreko ziurtagiria. Atzerriko tituluaren kasuan, homologazioa ere aurkeztu behar da, eta, kasu bada, zinpeko itzulpena ere bai.

- ✘ Ez du aurkeztu irakaskuntzarako gaitasun agiria gaztelaniara itzulita.
- ✓ Irakaskuntzarako gaitasun agiria aurkeztu behar duzu, gaztelaniara edo euskarara itzulita. Atzerrian egindako titulazioetarako, gainera, zinpeko itzultzaileak egin behar du itzulpena.

• **EGA** edo baliokidea, euskara edo euskarazko espezialitateak hautatuz gero:

- ✘ Ez du aurkeztu EGA tituluaren edo baliokide baten kopia osoa, irakurtzeko moduan eskaneatuta.
- ✓ EGA tituluaren edo baliokide baten kopia **erantsi behar duzu**, irakurtzeko moduan.
- ✘ EGA titulua edo baliokidea egiaztatzen duen ziurtagiria iraungia dago.
- ✓ Ziurtagiri batzuek denbora-balio jakin bat dute. Indarrean dagoen beste ziurtagiri bat edo tituluaren kopia aurkeztu behar duzu.

• Eskatzen den **atzerriko hizkuntza**:

- ✘ Ez du frogatu espezialitaterako eskatzen den atzerriko hizkuntzaren jakite maila.
- ✓ Eskatzen den atzerriko hizkuntzaren titulazioa aurkeztu behar duzu, otsailaren 28ko 30/2011 Foru Aginduaren arabera.

• **Zerrendetan ageri da**:

- ✘ Espezialitate eta hizkuntza honetarako indarrean dauden zerrendetako batean ageri da.
- ✓ Dagoeneko espezialitate horretan sartuta zaude.
"31/2020 Errege Lege-dekretuaren masterrik gabeko zerrendetan" ageriz gero: eskatutako prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa behar bezala egiaztatzen baduzu, berariazko zerrendan sartuko zara.

MEREZIMENDUAK ZUZENTZEA

• **Ikasketa espediente osoa**, batez besteko nota adierazita:

- ✘ Espediente irakurtezina.
- ✓ Ikasketa-espediente bat aurkeztu behar duzu, behar bezala bistaratzen dena eta dokumentuaren orrialde guztiak jasoko dituen.
- ✘ Aurkeztutako espedientea ez dator bat espezialitate honetarako baliozkoa den titulazio batekin.
- ✓ Espezialitate honetarako baliozkoa den titulazio bati dagokion ikasketa-espedientea aurkeztu behar duzu, apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinaren arabera.

- ✘ Ez du aurkeztu ikasketa-espediente ofiziala.
- ✔ Ikasketa-espediente osoa aurkeztu behar duzu, unibertsitateak zigilatua eta/edo sinatua.

- ✘ Ez du jatorrizko ikasketa-espedienterik aurkeztu.
- ✔ Jatorrizko ikasketa-espedientea aurkeztu behar duzu, ofiziala, orrialde guztiekin.

- ✘ Ikasketa-espedientea ez dago itzulita.
- ✔ Ikasketa-espedientea gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu behar duzu. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, jatorrizko espedienteaz gain, zinpeko itzulpena aurkeztu behar duzu.

- ✘ Ez du aurkeztu itzultako ikasketa-espediente ofizialik.
- ✔ Ikasketa-espedientea aurkeztu behar duzu, unibertsitateak zigilatua edo sinatua, eta gaztelaniara edo euskarara itzulia. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, jatorrizko espedienteaz gain, zinpeko itzulpena aurkeztu behar duzu.

- ✘ Ikasketa-espediente ez-ofiziala aurkeztu du, gaztelaniara itzuli gabea.
- ✔ Ikasketa-espedientea aurkeztu behar duzu, unibertsitateak zigilatua edo sinatua, eta gaztelaniara edo euskarara itzulia. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, gainera, zinpeko itzulpena aurkeztu behar duzu.

- ✘ Ikasketa-espediente itzuli gabea, osatu gabea eta/edo batez besteko nota agertzen ez duena
- ✔ Ikasketa-espediente osoa aurkeztu behar duzu (orrialde guztiak), batez besteko nota agertzen duena eta gaztelaniara edo euskarara itzulita dagoena. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, gainera, zinpeko itzulpena aurkeztu behar duzu.

- ✘ Ikasketa-espedientea osatugabea da.
- ✔ Ikasketa-espediente osoa aurkeztu behar duzu, orrialde guztiekin.

- ✘ Ikasketa-espediente osatugabea eta ez-ofiziala aurkeztu du.
- ✔ Ikasketa-espediente osoa aurkeztu behar duzu (orrialde guztiak), unibertsitateak zigilatua eta/edo sinatua.

- ✘ Ikasketa-espedientea osatugabea da, eta batez besteko nota falta da.
- ✔ Ikasketa-espediente osoa aurkeztu behar duzu (orrialde guztiak), batez besteko nota agertzen duena.

- ✘ Ikasketa-espedientean ez dago batez besteko nota.
- ✔ Ikasketa-espedientea aurkeztu behar duzu, karreraren batez besteko nota jasotzen duena.

- ✘ Ez du aurkeztu ikasketa-espediente ofiziala, batez besteko nota agertzen duena.

- ✓ Unibertsitateak zigilatutako edo sinatutako ikasketa-espeditentea aurkeztu behar duzu, karreraren batez besteko nota jasotzen duena.
- ✗ Ez du jatorrizko ikasketa-espeditentea aurkeztu itzulpenarekin batera.
- ✓ Jatorrizko ikasketa-espeditentea aurkeztu behar duzu, gaztelaniara edo euskarara itzulia. Atzerriko titulazioen kasuan, zinpeko itzulpena izan beharko da.
- ✗ Ez du aurkeztu atzerrian egindako ikasketen espeditenteko batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpena.
- ✓ Hezkuntza Ministerioak emandako baliokidetasun-adierazpena aurkeztu behar duzu, jatorrizko espeditentearekin batera. Baliokidetasun-adierazpena esteka honen bidez lor dezakezu: <https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/catalogo/gestion-titulos/estudios-universitarios/titulos-extranjeros/equivalencia-notas-medias.html>
- ✗ Ikasketa-espeditente ez-ofiziala edo osatugabea, batez besteko nota agertzen ez duena.
- ✓ Ikasketa-espeditente osoa (orrialde guztiak) aurkeztu behar duzu, unibertsitateak zigilatua eta/edo sinatua, batez besteko nota agertzen duena.
- ✗ Ez du aurkeztu espezialitaterako unibertsitateko ikasketa-espeditentea, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinean eskatzen dena.
- ✓ 590 kidegoan (Bigarren Hezkuntzako irakasleak) integratu diren espezialitateetarako, unibertsitate-tituluren bat eduki beharko da, apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinaren arabera. Meritu gisa baloratu daitekeen ikasketa-espeditentea unibertsitate-tituluarena da.

ZUZENDU EZIN DIREN KASUAK*

Ezin da zuzenketa egin, baldin eta baztertzeko arrazoia hauetako bat bada:

- ✗ **Lehenagotik egoteagatik** zerrenda indardun batean –orokorra nahiz berariazkoa izan– espezialitate eta hizkuntza horretan (zerrenda batean bazeunden, ezin duzu berriro izenik eman, aurretik uko egin behar diozulako berriro izena eman ahal izateko, adibidez dokumentazio berria aurkezteko). Ikusi 37/2020 Foru Aginduaren 14. artikuluko lehen puntuko h letra.
- ✗ Dokumentazioa **epez kanpo erregistratu da**
- ✗ Maila bereko edo goragoko kidego bateko funtzionarioa da edo izendatu zain dago. Ikusi 37/2020 Foru Aginduaren 14. artikuluko lehen puntuko e letra.

*Beti egin daiteke edozein erreklamazio, zuzenketak egiteko finkaturiko epean. Testu-koadroa erabil dezakezu, edo dokumentu bat erantsi.

Dokumentazioa prest duzunean, [klik egin](#) fitxa honetan berean dagoen
“[ZUZENKETA/ERREKLAMAZIOA TRAMITATU](#)” botoian:

TRAMITAZIOA

2023ko maiatzeko bigarren irekiera zuzentzea/erreklamatzea

Epea: 23/07/20 - 23/08/03

Deialdiko espezialitate eta hizkuntzak hauek dira:

590. - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa, gaztelaniaz:

- Enpresen administrazioa
- Marrazketa
- Ekonomia
- Gaztelania eta Literatura
- Matematika
- Antolaketa eta kudeaketa komertziala
- Hezkuntza-orientazioa

590. - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa, euskaraz:

- Enpresen administrazioa
- Marrazketa
- Ekonomia
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa
- Ostalaritza eta turismoa
- Esku-hartze soziokomunitarioa
- Gaztelania eta Literatura
- Matematika
- Antolaketa eta kudeaketa komertziala
- Hezkuntza-orientazioa

ZUZENTZEKO/ERREKLAMATZEKO GIDA

Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia

Honako egiaztagirri hauek erabil daitezke:

- Ziurtagiri digitala edo NAN elektronikoa
- Cl@ve

[ZUZENKETA/ERREKLAMAZIOA TRAMITATU](#)



Identifika zaitez eskura dituzun metodoetako bat aukeratuz:


navarra.eus

ES EU


Erregistro Orokor Elektronikoa

Zerbitzuan sartzeko identifikazioa

osteguna 2023ko uztailaren 27a 14:03



Ziurtagiri digitala edo eNANA



Cl@ve kredentziala

Internet bidezko tramiteetarako laguntza

Hori egin ondoren, zuzenketa edo erreklamazioa egiteko formularioan sartuko zara:

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketa/erreklamazioak egiteko eskaera

Eskabidea bete

Jomuga (*)

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCION Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena (*):

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketa/erreklamazioak egiteko eskaera

(*) Nahitaezko datuak

Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

1. - Eskabidea bete

2. Datu pertsonalak

3. Berariazko datuak

4. Sinatu eta igorri

5. Egiatagiria

Egiazta itzazu zure datu pertsonalak, eta, **nahitaezko** daturen bat falta bada –izartxo bat (*) dute–, bete ezazu.

Ez duzu markatu behar “Erantzun telematikoaren eskaera” laukia.

Ez dira jakinaraziko deialdiko hurrengo urratsak. Horiek webguneko fitxan argitaratuko dira bakarrik.



navarra.es

Castellano | Euskara | Français | English

Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK GAIK GOBERNUA AKTUALITATEA

Laguntzak eta bekak Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

rakasleak berriazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko
uzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Datu pertsonalak

Esan ezazu eskabidea zure ordez edo beste baten ordez aurkezten duzun: (*) Nahitaezko datuak.

Neure izenean Honako honen ordezkarri

Marka ezazu lauki hau nahi baduzu erantzuna bide elektronikoetatik jaso.

Eskabidearen aurkezlea:

Identifikatzailea (*):
Izena (*):
Lehen deitura (*):
Bigarren deitura:
Helbide elektronikoa (*):
Telefona (*):
Kalea (*):
Zenbakia:
Eskailera/Solairua:
Herrialdea (*):
Probintzia:
Herria (*):
Posta Kodea (*):

Jarraitu beharreko urratsak

1. Eskabidea bete
- 2. - Datu pertsonalak**
3. Berriazko datuak
4. Sinatu eta igorri
5. Egiatagiria

Aurrekoa Hurrengo

Nafarroako Gobernua | Jarraitu zurekin harremanetan | Erabilerraztasuna | Lene ahentza | Webaren mapa

“**Hurrengoa**” sakatuta, pantailan agertuko zaizu inskripzioan zer espezialitate hautatu zenituen, eta horietako bakoitzean zuzentzeko zer duzun.

Nahitaezkoa da testuaren ondoko laukia markatzea. Bertan adierazten duzu ulertzen duzula **aurkeztutako azken instantzia baino ez dela kontuan hartuko**, eta aurreko guztiak balio gabetuko direla.

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Berariazko datuak

2023ko maiatzeko zerrenda espezifikoen bigarren irekiera

Badakit, zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, behin-behineko zerrendari zuzenketak/erreklamazioak egiteko epearen barrenean aurkezten den azkeneko eskaera baizik ez dela tramitatuko, eta horrek bakarrik balioko duela.

Espezialitateak

Jarraian zehazten da zer espezialitatean sartzeko eskatu duzun. Espezialitate bakoitzean, deialdian adierazitako dokumentazioa zuzendu behar den eta zuzentzeko arrazoia zein den adierazten da. Dokumentazioa prestatu, eskaneatu eta hurrengo pantailan erantsi behar duzu. Deialdiaren bosgarren oinarrian adierazitakoaren arabera, akats formalak zuzentzen ez badituzu behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epean, eskaeran atzera egiten duzula ulertuko da. Izangaiek eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatzen ez dituzten merezimenduak ez dira inolara ere kontuan hartuko.

- 0590 - HEZKUNTZA ORIENTAZIOA / GAZTELANIA
- 0590 - MATEMATIKA / EUSKARA

Bazterte orokorrak

- Betebeharra: Aurkeztutako identifikazio-agiria ezin da irakurri edo osatu gabe dago.
- Betebeharra: Aurkeztutako identifikazio-dokumentua iraungita dago
- Betebeharra: EU_No cumple con el requisito del artículo 14 punto 1 letra f de la Orden Foral 37/2020, de 8 de abril del Consejero de Educación_EU
- Betebeharra: Ez du erantzukizuneko aitopenean aurkezten, diziiplina espediente baten bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez dela izan edo eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo ezgaitua ez dagoela, ezta diziplinako espediente baten ondorioz enplegua eta soldata behin-behinekoz edo irmo etenda dituela ere
- Betebeharra: Ez du frogatu espainiar baten ezkontidea denik, ezta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritar batena ere. Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren 14. artikuluko 1. puntuko baldintza orokorrak bete behar ditu
- Betebeharra: Ez du nortasun agiriaren kopia eskaneaturik aurkeztu

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Berariazko datuak**
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiaztageria

Kontuan izan **betekizunak** zuzendu egin behar direla prozesutik kanpo gera ez zaitez, eta **merezimenduak** (kasu honetan, espedienteak) zuzen daitezkeela edo ez, baztertzeko arrazoia ez baitira.



Erantsi zuzendu beharreko dokumentu bakoitza dagokion laukian. Testu libre bat ere idatz dezakezu horretarako prestatutako koadroan.

Alegatutako tituluaren ikasketa-espeditentea	<input type="button" value="Elegir archivos"/> No se ha seleccionado ningún archivo	<input type="button" value="Erantsi"/>
Euskararen ezagutza egiaztatze titulazioa	<input type="button" value="Elegir archivo"/> No se ha seleccionado ningún archivo	<input type="button" value="Erantsi"/>
Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa Dagokion prestakuntza pedagogikoa egiaztatu behar duen zerrenda hautatu duzu. Behar den titulazioa eranstean ez badu eta onartzen bada, kontratatze lehentasun txikieneko zerrendan sartuko da.	<input type="button" value="Elegir archivo"/> No se ha seleccionado ningún archivo	<input type="button" value="Erantsi"/>
Profilak	<input type="button" value="Elegir archivos"/> No se ha seleccionado ningún archivo	<input type="button" value="Erantsi"/>
Ondoko laukian zure alegazioa edo erreklamazioa idatz dezakezu:		
<input type="text"/>		
		<input type="button" value="Aurrekoa"/> <input type="button" value="Hurrengoa"/>

Zure disko gogorrean aukeratu zer dokumentu behar dituzun, eta banan-banan erantsi. Fitxategi bat aukeratu ondoren, sakatu **“Erantsi”** botoia zure eskaerari benetan erantsita gera dadin:

Bukatzen duzunean, sakatu **“Hurrengoa”**, eta han agertuko da aurkeztutako guztiaren **laburpen bat**.

Pantaila horretan agertuko zaizkizu proposatutako zuzenketa guztiak, bai eta erantsitako fitxategi guztiak ere. Horretaz gain, emanen dizu datu pertsonalen gaineko tratamenduari buruzko informazioa, eta lauki baten bidez behartuko zaitu **adieraztera** ezen **irakurri eta onartzen** dituzula erantsitako agirien egiazkotasun baldintzak:



Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Sinatu eta igorri

Nork aurkeztua

Identifikatzailea:

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Erantzun telematikoa jasotzeko eskaera: Ez da eskatu erantzun telematikorik.

Jasotze-agiriaren zenbakia

Jomuga: DEPARTAMENTO DE EDUCACION/SERVICIO DE SELECCIÓN Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena: Solicitud de subsanación/reclamación a la incorporación periódica de personal docente a las listas específicas

Berariazko datuak:

Deialdia: 2023ko maiatzeko zerrenda espezifikoaren bigarren irekiera

Badakit, zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, behin-behineko zerrendari zuzenketak/erreklamazioak egiteko epearen barrenean aurkeztu den azkeneko eskaera baizik ez dela tramitatuko, eta horrek bakarrik balioko duela.

Erantsitako agiriak

Nortasun agiria:

- doc05676020230717104402.pdf

Aurkeztutako dokumentuak

Documento de identidad - doc05676020230717104402.pdf

Datu babesari buruzko informazioa

Datu pertsonalen babesa

Nafarroako Gobernutik jakinarazten dizugu nola kudeatuko ditugun eskabide orokor honen datuak eta harekin batera ematen dizkiguzun agirienak.

Nor da zure datuak kudeatzeko arduraduna?

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusia. Zuzendaritza nagusi hori Nafarroako Gobernu Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuan dago.

Zer egingen dugu zure datuekin?

Zure datuak Nafarroako Gobernuaren aplikazio honetan sartuko ditugu: Agirien Sarrera-

Hartzen dut eskabide hau baldintza hauen arabera aurkeztea.

Jarraitu beharreko urratsak

1. Eskabidea bete
2. Datu pertsonalak
3. Berariazko datuak
- 4. - Sinatu eta igorri**
5. Egiaztagina

Aurrekoa

Sinatu eta igorri



“Sinatu eta bidali”-n sakatu ondoren, sistemak frogagiri bat emanen digu. **Frogagiri** hori PDF batean gorde edo inprima dezakegu (prozesua egin dela eta behar bezala bukatu dela egiaztatzen du):

navarra.es

Castellano | Euskara | Français | English

Bilatzailea Sartu hitzak

NAFARROA ZERBITZUAK **GAIK** GOBERNUA AKTUALITEA

Laguntzak eta bekak Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

Irakasleak berriazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Egiaztagiria

Nork aurkeztua

Identifikatzailea:

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Erantzun telematikoa jasotzeko eskaera: Ez da eskatu erantzun telematikorik.

Eskabidearen datuak

Jasotze-agiriaren zenbakia: 1109

Jomuga: DEPARTAMENTO DE EDUCACION/SERVICIO DE SELECCIÓN Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Aurkezpen data: 27/07/2023

Sarrera data: 27/07/2023

Eskabidearen laburpena: Solicitud de subsanación/reclamación a la incorporación periódica de personal docente a las listas específicas

Berriazko datuak:

Deialdia: 2023ko maiatzeko zerrenda espezifikoaren bigarren irekiera

Badakit, zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, behin-behineko zerrindari zuzenketak/erreklamazioak egiteko epearen barrenean aurkeztu den azkeneko eskaera baizik ez dela tramitatuko, eta horrek bakarrik balioko duela.

Erantsitako agiriak

Nortasun agiria:

- doc05676020230717104402.pdf

Aurkeztutako dokumentuak

Documento de identidad - doc05676020230717104402.pdf

Jarraitu beharreko urratsak

1. Eskabidea bete
2. Datu pertsonalak
3. Berriazko datuak
4. Sinatu eta igorri
- 5. - Egiaztagiria**

Languntza

Orrialde honetan zure eskabidearen egiaztagiria agertzen da.

Komeni da egiaztagiria inprimatzea: klik egin "inprimatu" botoian, orrialde honen bukaeran.

Egiaztagiriaren informazioa baliagarria izan dakizuke gerora ere Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jartzean.

Sistemak ez badizu frogagiri hori ematen, berrikusi urrats guztiak. Litekeena da zerbait behar bezala bukatu ez izana.

Horrekin, zuzentzeko prozesua bukatutzat eman dezakezu.

Une horretatik aurrera **aztertu**ko da zuzenketak edo erreklamazioak egiteko aurkeztu duzun dokumentazioa, eta behar dena eginen da. Ondoren, **argitara emanen da** onartuen behin betiko zerrenda.

Arazo informatikorik baldin baduzu, idatzi soportec@navarra.es helbidera edo deitu 948 013 576 telefonora, 08:30etik 17:30era, astelehenetik ostegunera. Ostiraletan eta uztailean, abuztuan eta irailean, arretarako ordutegia 08:30etik 15:00etara bitartekoa da.